



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko maiatzaren 10ean

39 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen testu bategina aldatzen duena (3. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legea aldatzeko Lege proposamena, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Merkataritzari buruzko Foru Lege orokor bat egin dezan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko arauak alda ditzan, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da herrialde txiroenen kanpo zorra deusezta dezan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (13. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espetxe berrian Jarraipen Bereziko Espetxeratuaren Fitxategia (JBEF) ereduko modulu bat sortzea eragoz dezan, Begoña Errazti Esnal foru parlamentari andreak aurkeztua (14. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere langileen eta azpikontratutako langileen segurtasuna eta osasuna bermatuko dituen aurreneurrien plan bat egin dezan, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua (15. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Garraioaren Hiriko erreka hobetu eta estaltzeari buruzko galdera, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egin (17. or.).

- Espainiako Telefónicak datu pertsonalak erabiltzeari buruzko galdera, Félix M^a Taberna Monzón Foru Parlamentari jaunak egin (18. or.).
- Nekazaritza inbertsioen blokeoaren ondorioz sorturiko polemikari buruzko galdera, José Andrés Burguete Torres Foru Parlamentari jaunak egin (19. or.).
- Foru Administrazioko lanpostuetan euskararen erabilerari eta baremazioari buruzko galdera, José Andrés Burguete Torres Foru Parlamentari jaunak egin (20. or.).
- Los Arcosen kontserben arloko industria bat ezartzeari buruzko galdera, José Andrés Burguete Torres Foru Parlamentari jaunak egin (21. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen testuategina aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1 artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2000ko apirilaren 17an hartutako erabakiaren bidez, nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen testuategina aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehenena.- Nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen testuategina aldatzen duen Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideatzea.

Bigarrenena.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordearen esku uztea.

Hirugarrenena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun baliouduneko epe bat** irekiko da, **2000ko maiatzaren 29ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakorekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak aurtikulei emendakinek aurkeztu ahalko dituzte.”

Iruñean, 2000ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen testuategina aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Otsailaren 16an eman eta otsailaren 16ko 30. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 54/1998 Legegintzako Foru Dekretuak indarra duen nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen Testuategina onetsi zuen, dena 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legeko hogeita hamalagarren xedapen gehigarrian emaniko baimenaren arabera. Testuategin horrek oso-osorik ordeztu zuen apirilaren 4ko 133/1991 Legegintzako Foru Dekretua, legezko aldaketa asko izan zituen.

2000 Agenda deritzona osatzen duten arauko xedapenen multzo garrantzitsuen barruan, Europako Batasuneko Kontseiluak maiatzaren 17ko 1257/1999 Erregelamendua (EE) onetsi zuen, Europako Nekazaritzaren Orientabide eta Bermearen (FEOGAren) kontu herriak garatzeko laguntzei buruzkoa. Erregelamendu horren bidez beste erregelamendu batzuk aldatu eta indargabetu ziren. Herriak garatzeko laguntzen artean Europako Batasuneko Erregelamendu berriak aipatzen ditu nekazaritzako ustategietako inbertsioak, gazteei nekazari bihurtzen laguntzekoak eta nekazaritzako produktuen eraldaketa eta salerosketak hobetzekoak.

Bestaldek, Europako Batzordeak, 2000ko otsailaren 1ean, nekazaritza sektorerako Estatuko laguntzei buruzko Europako Batasuneko zuzentzarauak argitaratu ditu, besteak beste, nekazaritzako ustategietako inbertsiorako laguntzei, nekazaritzako produktuak eraldatu eta merkaturatzeko sektoreko inbertsioari eta gazteak nekazari bihurtzeko laguntzei aplikatzekoak.

Arautegi berri hori Nafarroako Foru Komunitatean behar bezala aplikatu ahal izateko, nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen Testu Bategina, otsailaren 16ko 54/1998 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, arautegiko eskakizun eta betebeharrak egokitu behar da. Egokitze hori, gehienbat, Testu Bategineko II. Tituluari dagokio, horretan nekazaritzako egituren eragina hobetzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren laguntza publikoaren orotariko arauak ezarri baitziren.

Manu aldatuei ematen zaien idazketa berriak ahalbidetzen du erantzun arinago bat agintaritzako publikoaren aldetik, neurriak finantzatzeko korritu tasak aldatzen direnean, eta posible egiten du laguntza mota batzuk aukeratzea, hala nola, kapitalerako itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak edo maileguen korrituendako sorospenen, unean unean agertzen diren inguruabarrak kontuan hartuta.

Azkenik, legearen aldaketak, halaber, nekazaritzako aseguruaren lerro berriak lehenago abian jartzeko aukera dakar. Horretarako behar diren administrazio jarduketak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari organorik egokienari esleitzen dizkie, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariari, hain zuzen ere, kasuan kasuko foru aginduen bidez.

1. artikulua. Aldatu egiten dira otsailaren 16ko 54/1998 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsirik nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen Testu Bategineko II. Tituluko 3., 4. eta 5. artikulua, nekazaritzako egituren eraginaren hobekuntzari buruzkoak.

“II. TITULUA

Nekazaritzako egituren eragina hobetzea

3. artikulua. Xedea.

Titulu honen barrenean sartuko dira:

a) Kontseiluak 1999ko maiatzaren 17an emaniko 1257/1999 (EE) Erregelamenduan Europako Nekazaritzaren Orientabide eta Bermearen (FEO-GAren) kontu herriak garatzeko laguntzei buruz aipatzen direnak, haien helburu baldin bada:

– Nafarroako abeltzaintzako inbertsioak sustatzea.

– Gazteei lehenbizikoz nekazari bihurtzen laguntzea.

– Nekazaritzako produktuen eraldaketa eta salerosketa hobetzea.

b) Nafarroako Aurrekontu Orokorren kontu finantzaturiko laguntza nazionalak, haien helburua nekazaritzako egituren eragina hobetzea bada.

c) Inbertsioak, haien helburua baldin bada:

– Osasun ekinaldien bidez hil diren behiak ordeztzea.

– Kooperatibek eta eraldaketarako nekazari elkarteek makinak erostea, makina horiek bazkideek batera eta zuzenean erabiltzekoak badira.

4. artikulua. Onurak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak erregelamendu bidez ezartzen diren onurak ematen ahalko ditu, kapitalerako dirulaguntzak izan daitezkeenak edo haien baliokidea korrituen hobarietan, edo bien konbinazioa, maiatzaren 17ko 1257/1999 (EE) Erregelamenduan edo, hala bada, nekazaritzako sektorerako Estatuko laguntzei buruzko Europako Batasuneko zuzentaraue-tan ezarritako gehieneko mugak errespetatuz.

2. Ondoriozko mailegu edo kredituei, hobaria aplikatutakoan, gutxienez ere 100eko 1,5eko korritu tasa ezarriko zaie. Gehienez ere, mailegu edo kredituen korrituen ehuneko 8 finantzatuko da. Maileguez gehienez ere hamabost urteko epea izanen dute.

5. artikulua. Onuradunak.

1. Nafarroako nekazaritzako ustategietako inbertsioak sustatzeko eta gazteei lehenbizikoz nekazari bihurtzeko laguntzen onuradun izan daitezke:

a) Pertsona fisikoak, nagusiki nekazariak badira eta maiatzaren 17ko Kontseiluaren 1257/1999 (EE) Erregelamenduan xedaturikoaren arabera erregelamenduz ezartzen diren beste betebeharrak betetzen badituzte.

b) Pertsona juridikoak, haien helburu bakarra nekazaritza bada eta, gutxienez ere, haien bazkideen 100eko 50 nagusiki nekazariak badira. Halaber, kapital sozialaren 100eko 50ek eta elkartearen organo erabakigarrietako ordezkari gehienak nagusiki nekazariak direnen eskuetan izan behar dute.

2. Nekazaritzako produktuen eraldaketa eta salerosketa hobetzeko laguntzen onuradun izan daitezke pertsona fisikoak eta juridikoak, baldin eta zama finantzarioa haiei badoakie eta dirulaguntzaren xede diren inbertsio eta gastuen azkeneko erantzuleak badira, enpresen bideragarritasun ekonomikoa frogatuz gero, eta ingurumen, higiene eta abereen ongizateari buruzko gutxienezko arauak betez gero.

3. Osasun ekinaldiaren ondorioz hil diren behiak ordezteko inbertsioetarako laguntzak eskatzen ahalko dituzte erregelamendu bidez ezarritako baldintzak betetzen dituzten abeltzainek.

4. Makinak erosteko laguntzak eskatzen ahalko dituzte erregelamendu bidez ezartzen diren betebeharrak betetzen dituzten kooperatiba eta eraldaketarako nekazari elkarteek.”

2. artikulua. Hemendik aurrera ulertuko da otsailaren 16ko 54/1998 Legegintzako Foru

Dekretuaren bidez onetsiriko Testu Bategineko 18, 19 eta 23 artikuluetan eta 25. artikuluko 2. idatz-zatian Nafarroako Gobernuaz egiten diren aipuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariari dagozkiola.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legea aldatzeko Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz eta Espainiako Konstituzioko 87.2 artikulua babesean, Nafarroako Demokratikaren Elkar-gunea Parlamentuko Taldeak farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legea aldatzeko Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145 eta 204. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Bozera-maileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legea aldatzeko Lege proposamenaren biderapena onestea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legea aldatzeko Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

- I -

Estatuak osasunaren, sendagaien, farmazi laguntzaren eta antolamenduaren eta gizarte segurantzaren arloko eskumenak ditu (Konstituzioaren 149.1.1go., 16gn. eta 17gn. art.). Hori dela eta, aukera du arlo horiei buruzko oinarriko legeak emateko. Halaber, Konstituzioak

(148.1.21gn. art.) eta autonomi estatutuek osasun arloko eskumenak aitortu dizkiete autonomia erkidegoei, legez garatu beharreko eskumen titulu batzuen bidez eta Estatuko oinarriko legeen betearazpenaren esleitze konplexu baten bitartez.

Farmazien antolamenduaren arloko Estatuko oinarriko legeak, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, “arauen bitarteko erregulazio uniforme bat da, nazio osoan indarra duena; horrexek bermatzen du –autonomia erkidego baten interesen gaineko interes orokorrak erdiestearren– arau-oinarri komun bat izatea. Hortik abiatuta, erkidego bakoitzak, interes orokor propioaren defentsan, nahi dituen berezitasunak ezarri ahal izanen ditu” (1982-1-28ko epaia). Oinarriko markotik abiatuta, autonomia erkidegoek “erregulazio anitz” (Konstituzio Auzitegiaren 1982-11-4ko epaia) ezar ditzakete, “politika propio baten araberrako gobernu jardueran” (Konstituzio Auzitegiaren 1982-6-14ko epaia); betiere, amaierako erregulazioa “Estatuaren eta autonomia erkidegoen baterako jardueraren emaitza izanen da” (Konstituzio Auzitegiaren 1982-12-23ko epaia). Autonomia erkidegoen legez garatu beharreko eskumenak erabiltzeko orduan, beraz, Estatuko arauak izanen dira oinarri.

Farmazien zerbitzuak arautzeko dagokionez, 1855eko Osasunari buruzko Legeak, Farmaziari buruzko 1860ko Ordenantzek eta 1904ko Osasunari buruzko Instrukzio Orokorrak honela sailkatu zuten farmazi jarduera: sendagaiak ematea monopolio gisa duen osasun lanbidea, askatasunez ezartzeko araubidea duena baina Administrazioaren kontrolaren menpe, hain zuzen ere baimen eta ikuskapenen bitartez.

1941eko urtarrilaren 24ko Dekretuak erabateko aldaketa egin zion aurreko araubideari askatasunez ezartzeko dagokionez. Dekretu hori Farmaziei buruzko 1944ko osasun arloko lege nazional orokorraren XVI. oinarrian jaso zen. Azken horrek “nazioko lurraldean arautu eta mugatu zuen farmazien ezarpena, baita behar diren amortizazioak

eginez ere; betiere, jabearen interesak gordeko dira". Lege hori 1957ko maiatzaren 31ko Dekretuaren bitartez garatu zen. Geroago, apirilaren 14ko 909/1978 Errege Dekretuaren bitartez, indarririk gabe geratu zen dekretu hura. Azkenik, 1979ko azaroaren 21ean gai honi buruzko Ministerio Agindu bat eman zen.

Apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoaren 4. artikulua sendagaiak eta osasun produktuak aipatu zituen. Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrak Osasun Sistema Nazionala ezarri zuen oinarri gisa, eta harekin batera partikularren osasun jarduerari, farmazi produktuei eta farmazi laguntzari eta antolamenduari buruzko arauak ere eman zituen. Gizarte Segurantzaren arloan, maiatzaren 30eko 2065/1974 Dekretuak Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bateratua onetsi zuen; lege horren medikuntza eta farmazi prestazioei buruzko 103. artikulutik 108. artikulura bitartekoek indarrean darraite, nahiz eta ekainaren 20ko 1/1994 Errege Dekretu Legegileak hura indarririk gabe utzi.

Estatuko eskumen tituluaren babesean, sendagai buruzko abenduaren 20ko 25/1990 Legea eman zen. Lege oinarritzkoa zen, oro har, eta farmazi laguntza eta farmazien antolamendua, farmazietan sendagaiak ematea, ospitaleetako farmaziak eta beste alderdi asko arautu zituen. Hori dela eta, sendagai buruzko eta haiei loturiko osasun jarduerari buruzko araurik garrantzitsuena da. Farmazien antolamenduari buruzko arauak osatzeko, jendearentzako farmazi zerbitzua zabaltzeari buruzko urtarrilaren 17ko 11/1996 Errege Dekretu-Legea eman zen, zeina Farmazien zerbitzua arautzeko apirilaren 25eko 15/1997 Legearekin indarririk gabe geratu baitzen. Azken horretan ezarri ziren farmazien antolamenduari buruzko Estatuko oinarriak.

Autonomia erkidegoek farmaziak antolatzearen arloan duten eskumenenaren aitortzea beheko osasunaren estatutuen bidezko eskurantzaren oinarrituta dago, Estatuak gaiari buruz ematen dituen legeei jarraituz (Konstituzioaren 149.1.16gn. art.). Halaxe aitortu du, oro har, jendearentzako farmazi zerbitzua zabaltzeari buruzko urtarrilaren 17ko 11/1996 Errege Dekretu-Legeak, zeina Farmazien zerbitzua arautzeari buruzko apirilaren 25eko 16/1997 Legeak indarririk gabe utzi baitzuen. Gainera, beren eskumen osoa erabiliz autonomia erkidegoek arlo honi buruz egindako lege ugari edo osasunari buruzko lege garapeneko legeek hori berretsi dute (Konstituzioaren 148.1.21gn. art.).

Beraz, Estatuko oinarritzko arauak ezinbesteko tresna dira, farmazi jarduerari antolatzeari dagokio-

nez, arlo honi buruz autonomiek dauzkaten eskumenak garatzeko orduan. Horrela, bada, asmo berritzaile guztiak hark mugatutako lekuan baizik ezin dira sartu; bestela, autonomi arauak Konstituzioaren aurkakoak izan daitezke. Estatuko oinarritzko legeek jarduerari tarte estuak utzi dizkie autonomia erkidegoei, eta horrek berekin ekarri du erkidegoek ezin egokitu izatea farmazi laguntzaren araubidea eta farmazien antolamendua beren osasun eta gizarte arloko beharrezan eta beharrezan ekonomikoari. Hartara demostratu da nola estatuko oinarritzko legeak erabiltzen diren autonomia erkidegoetako eskumenak xafatzeko eta autogobernuaren erakundearen erabaki politikoei mugak jartzeko teknika gisa.

Zehazki, Estatuko legedi oinarritzkoak, Farmazien zerbitzua arautzeari buruzko apirilaren 25eko 16/1997 Legearen 2.1, 2.2, 2.5, eta 6. artikuluen bitartez, sektorearen edozein liberalizazio zaildu ezezik, plangintza irizpideak ezartzearekin –hau da, hura erabakitzearekin– oztopoak ere jartzen ditu erkidegoek beharrezan kolektiboetarako egokiagoa izanen den lurralde antolamendu egokiagoa egin dezaten.

- II -

Elkarlehia Defendatzeko Auzitegiak, farmaziei buruzko bere 1995eko Txosten, Balantze eta Proposamen izeneko agiriaren V. kapituluaren sektorea berrantolatzearen neurrien eta arau-aldaketaren multzo zabal bat proposatu zuen, lehiakorrago izan dadin: "Alde batetik Estatuko administrazioak eta administrazio autonomikoak eta bestetik farmaziarren elkargo ofizialek ezarritako arauak berekin ekarri dituzte murriztapen handiak, eta horiek ondorio negatiboak izan dituzte prezioetan, sendagaiak banatzeko baldintzetan eta farmaziako lizentziatuen enpleguan. Egin diren arauak eta arautzeko dauden aukerak azterturik, argi garatu da bidezkoa dela modu eraginkorrean konbinatzea alde batetik interes orokorren eta osasunaren defentsa eta bestetik enpresen askatasun handiagoa, eta horrek guztiak onura ekarriko diela kontsumitzaileei, merkatuan elkarlehia gehiago baldin badago".

Helburu hori erdiesteko, Estatuak edo Gorte Nagusiek –Ministroen Kontseiluaren erabakien, ministerio aginduen, errege dekretuen edo legeen bitartez– egin beharreko lege mailako neurri eta aldaketaren zerrenda proposatu du Auzitegiak. Haien artean, farmazien antolamenduari eta plangintzari dagokienez ondokoak gogoratu behar dira:

"1. Autonomia erkidegoei gomendatzea legeko edo arauko muga berriak ez jartzeko farma-

ziak irekitzeari dagokionean, eta ez eskuordetzeko farmazilarien elkargo ofizialei elkarlehia gehiago murriz dezaketen ahalmenak (Ministroen Kontseiluaren erabakia).

4. Farmaziak zabaltzeko oztopoak kentzea herritar ugari dabiltzan lekuetan (esate baterako, aireportuak, geltokiak, merkataritza gunek). (Legea edo Errege Dekretua).

5. Berehala kentzea gorabehera natural nahiz artifizialen edo urbanizatu gabeko alderdien aipamena farmazi berri bat jartzeko behar den baimena lortzeko (Legea edo Errege Dekretua).

6. Medikamentuei buruzko Legea aldatzea, farmazien plangintza orokorra zehazteko; hain zuzen ere, farmazi laguntza egokia gutxienekoen lege bat izan dadin bermatzeko, eta ez gehienekoen lege bat, 909/1978 Errege Dekretuaren 3.1 artikulua, adibidez, ezartzen duen bezala. (Medikamentuei buruzko Legea aldatzea).

9. Farmaziak irekitzeko eta ixteko ordutegiak liberalizatzea eta haiek arautzea soilik merkatuak zerbitzua, guardiako gutxieneko txandak eta oporrei buruzko gehieneko txandak bermatzen ez dituenean.

10. Gehienez ere bost urteko epean, gutxieneko distantzietan buruzko aipamenak eta biztanleen kopuruari buruzko aipamenak kentzea, farmaziak irekitzeko beharrezko baldintza gisa. (Medikamentuei buruzko Legea aldatzea)."

Neurri eta aldaketa horiek egun apirilaren 25eko 16/1997 Legeari dagokionez ulertu behar dira; izan ere, lege horrek farmazien antolamenduen oinarriak arautzen ditu eta Espainiako Zuzenbidearen plangintzaren eta antolamenduen sistema tradizionala mantendu du; sistema horrek biztanle moduluak, establezimenduen arteko distantzia eta eskualdatu daitekeen titulartasun pribatuaren jarduerarako administrazio baimena ditu zutabe nagusiak. Autonomia erkidegoen esku uzten du oinarrizko osasun unitateak ondokoan arabera antolatzeko berariazko irizpideak ezartzeko eskumena: dentsitate demografikoa, ezaugarri geografikoak eta populazioaren dispersioa. Antolamendua egiteko tresnak, berriz, Legeak ezarritako populazioaren oinarrizko moduluen kopurua eta zenbaketa, eta farmazien arteko distantzia izanen dira. Lege honek ez du berekin ekarri Elkarlehia Defendatzeko Auzitegiak eskatzen zuen liberalizazioa: farmazia bat irekitzeko populazio modulu bat eta gutxieneko distantzia bat finkatzeak berekin dakarren murriztapena dute oinarri, eta horren ondorioz ezar eta baimen daitekeen farmazien gehieneko kopuru baten plangintza egiten da.

Elkarlehia Defendatzeko Auzitegiak proposatzen dituen neurriak eta aldaketak "de lege ferenda" erakoak dira, eta Auzitegiak berak aitortzen duenez, kasuan kasuko multzo normatiboan aldaketak egitea exigitzen dute.

Bere aldetik, Senatuko Farmazi Zerbitzua antolatzeari buruzko Batzorde Bereziak, 1997ko bere txostenean, egiaztatu zuen Europar farmaziak ezartzeko ereduarekin batera irizpide geografikoen eta demografikoen arabera murriztapenak jartzen dituzten ereduak ere badaudela (2), eta baita ere "beharrezkoa dela farmaziak irekitzeko baimenak emateko tresnak hobeki arautu behar direla ere, osasunaren eta gizartearen arloko irizpideak erabiliz eta ez soilik merkataritzako irizpideekin" (7). Legea aldatzeko zenbait neurri proposatu zituen, esate baterako ondokoa lortzeko gomendioen bitartez: "farmazia berriak ezartzeko malgutasun handiagoa, horrekin haiek liberalizatzea proposatu gabe ere, Europako Batasuneko herri kontinentaletan ezartzen den erritmoari jarraituz eta gure herriko berezitasun demografiko, orografiko eta sozialei jarraituz" (7-d). Horiek guztiak etorkizunerako proposamenak dira, farmazien egungo arauen markoa aldatzea exigitzen dutelako.

Bi dokumentu horiek egiaztatzen dute zeinen beharrezkoa den Elkarlehia Defendatzeko Auzitegiak honela azaltzen duena liberalizatzeko prozesuari ekitea: "salmentarako merkataritza establezimendua —haren titulartasuna erdiesteko bizi osorako lizentzia administratiboa behar da—, zein beste produktu batzuekin batera farmazi espezialitateak saltzen baitira; alde batetik farmazilari batek eginiko inbertsioa dago, eta, bestetik soldatapeko zenbait langile kualifikatu daude, osasun zerbitzua emanez inbertsio hari etekina ateratzeko". Kontua da "instalaturik dauden farmazilariari artifizialki, indarreko legediak eskatzen dituen osasun berme guztiarekin farmazi bat ireki nahi dituztenen kaltetan, mesede egiten dien legedi bat gainditu nahi da".

Apirilaren 25eko 16/1997 Legea indarrean dagoenetik hiru urte igaro direla, egiaztatu ahal izan da autonomi erkidegoetako eskumenak erabiltzeko negatiboa izateaz gainera, ez dela baliagarri izan apirilaren 14ko 909/1978 Errege Dekretuari egozten zion akatsa, alegia "oztopo gaindiezina izatea zerbitzuak zabaltzeko eskari guztiz logikoarentzat, eta lanbidean gatazkak eta frustrazioak sortzeko iturria izatea". Alderantziz, egoera horiek finkatzeko balio izan du, bideraezin bihurtu dituelako alde batetik populazioari eta distantziari buruzko moduluetan eta bestetik dentsitate demografikoan, ezaugarri geografikoetan eta

populazioaren dispersioan oinarrituriko antolamendu markoa aldatzeko autonomi erkidegoetan eginiko lege ahalegin guztiak.

Adierazitako eskasiak gainditzeko --betiere, osasunerako eskubidea, lanbidean libreki aritzeko eskubidea eta enpresa bat izateko eta ezartzeko askatasuna izateko eskubidea- gauzatzeko bidea emanez- gure proposamena da autonomi erkidegoek farmazien plangintzan eta antolamenduan dituzten eskumenak aitortzea. Eskumen hori proposaturiko helburuetarako egokiak diren irizpideez gauzatu dira.

TESTU ARTIKULUDUNA

Lehen artikulua.- Farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legeko zenbait artikulua eta xedapen aldatzea.

Farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legeko ondoko artikulua eta xedapenak aldatzea. Hona testua:

"2. artikulua. Lurralde antolamendua.

Autonomi erkidegoei dagokie farmazi laguntzari buruzko plangintza egitea eta hura populazioaren arabera antolatzea. Ondoko irizpideei jarraitu beharko diete:

a) Osasuna babesteko eskubidea bermatzea, farmazi laguntza egokia emanez berdintasun baldintzetan.

b) Lanbidean libreki aritzeko farmazilarien eskubidea eta enpresa bat izateko eta ezartzeko askatasuna gauzatzeko bidea ematea.

c) Farmazien plangintza osasun plangintzari egokitzea, erreferentziako barrutizat hartuz osasun laguntzako oinarritzko unitateak.

d) Bermatzea hiri eta landa eremuetako farmazi prestazioen irisgarritasuna eta kalitatea, eta haietan zerbitzu aski emanen dela.

2. Azken xedapenetako lehena.

Lege honetako 2, 4 eta 5. artikulua osasunari buruzko Estatuko legedi oinarritzkoa osatzen dute, Konstituzioaren 149.1.16gn. artikulua babesean.

Xedapen indargabetzaile bakarra

Indarrrik gabe gelditzen da apirilaren 25eko 16/1997 Legearen 2. artikulua eta azken xedapenetako lehena, Lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten neurrian.

Azken xedapen bakarra

Lege honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Merkataritza buruzko Foru Lege orokor bat egin dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Merkataritza buruzko Foru Lege orokor bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinek aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko bozeramaile Juan José Lizarbe Baztán jaunak, mozioak arautzen dituen Biltzarren Erregelamenduko 192. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin; mozio honen bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Merkataritza buruzko Foru Lege Orokor bat egin dezan. Lege horrek, zenbait irizpide, hala nola, lurraldearen antolamendua, arrazionaltasuna eta globaltasuna, erabiliz erregulatuko ditu alderdi hauek, besteak beste: egungo merkataritzaren modernizazioa eta suspertzea; merkataritzako eremu handien ezarpena; eta aisiarako eta negozioarako programa integratuak bultzatzea.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen ustetan, Nafarroako Foru Komunitateko barne merkataritzaren sektore eko-

nomikoak antolaketa eta erregulazio orokorra behar ditu, azken urteotan arlo horretan gertatzen ari diren aldaketetara, eremu handien sorrerara, adibidez, egokitu ahal izateko; horiek, antolatu gabe, hau da, lurraldearen antolamenduan oinarrituriko irizpideak aplikatu gabe, ezartzen badira, Nafarroako merkataritzaren ehuna urratu dezakete eta gure komunitatearen lurralde orekarako oso kaltegarri suertatu daitezke.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen iritziz, udalerrietan, eskualdeburu diren herrietan eta hiriburuan nola honen metroli eremuan merkataritzako ekipamendua bertan bizi den eta mugitzen den biztanle kopuruaren eta eskariaren araberakoa izatea lortzea da etorkizunerako helburua, merkataritzako eskaintza behar adinakoa izan dadin herritar guztientzat, bizitoki duten herriaren kokapen geografikoa edozein izanik ere.

Aldi berean, gure iritzia da merkataritzako establezimendu mota berriek eraginda Nafarroako merkataritza-ehunean sortuko diren aldaketa horiek ez dutela ondorio kaltegarriak, ez eta ustekabekorik ere, izan behar gure komunitatearen geroan, lurraldearen antolamenduari eta eskualdeen etorkizuna arautuko duten hirigintza irizpideei dagokienez.

Nafarroako Parlamentuak argi utzi behar du, bestalde, Nafarroako Foru Komunitatean merkataritzako eremu handiak ezartzearen inguruan hartzen diren erabakiak arrazionaltasunak eta garrantzutasunak gidatu beharko dituztela, irizpide objektiboetan oinarriturik. Horrek jarrera argiak eskatzen ditu gure komunitatean merkataritzako banaketaren arloko erabakietan esku hartzen duten erantzule politikoengandik; jarrera horiek egoera horretarako oraindik ez dugun lege esparru argigarri baten eskutik etorriko dira.

Horregatik, komenigarria dirudi, sektorearen errealitatea, bereziki Iruñeko inguruetan eta Iruñe-

rrian, are nahasiagoa bihur dezaketen erabakiak hartu baino lehen, proiektu berrien lizentziak eta daudenak handitzekoak bertan behera eta gerorako uzteko epe bat aplikatzea, eskaintza erreal gehiagorik ez izateko, gizarteak eztabaidatutako eta Parlamentuak onetsitako lege-esparru definiturik izan gabe.

Aurrekoa erdiesteko, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak beharrezkotzat jotzen du lehenbailehen izatea merkataritzari buruzko Foru Lege Orokorra, gurea, zenbait irizpide, hala nola, lurraldearen antolamendua, arrazionaltasuna eta globaltasuna, erabiliz erregulatuko dituen, besteak beste, alderdi hauek: egungo merkataritzaren modernizazioa eta suspertzea; merkataritzako eremu handien ezarpena; eta aisiarako eta negozioarako programa integratuak bultzatzea.

Horrenbestez, Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Departamentuak behin eta berriz iragarri duenez lan horretan aspaldian ari dela, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Parlamentuaren Osoko Bilkurari ondoko erabaki proposamena onestea proposatzen dio:

1. Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernuak premiatzea Parlamentura igor dezan, hilabeteko epean, Merkataritzari buruzko Foru Lege Orokorren proiektua, irizpide hauek kontuan hartuz prestatua:

- Sektore osoa modu globalean arautu behar du, merkataritzako espazioak eta jatetxeak ez ezik, aisia, kultura, zinematografia eta abarrekin zerikusia dutenak ere, eta merkataritzako estable-

zimenduen mota guztien beharrak eta berezitasunak hartu beharko ditu.

- Lurraldearen antolamenduko eta hirigintzako irizpideak bete eta aplikatu beharko ditu.

- Egun dagoen merkataritza txikia eta ertaina, bereziki usadiozkoak, garatzea eta suspertzea helburu izan behar du, horien modernizazioari lagundu, gaitasun teknologikoa handitu eta kudeaketa hobetzeko.

- Merkataritzako eremu handi berrien ezarpena modu arrazionalen arautu beharko du, eta usadiozko merkataritza kokaturik dagoen hiriguneetara ekarriko dituzten ondorioei arreta berezia eskaini, toki horietan merkataritza mota hori desager ez dadin.

- Aisiarako eta Negoziorako Programa Integratuaren aplikazioa sustatu beharko du.

- Onetsi aurretik, afera honek ukitzen dituen sektore guztiak kontuan hartu beharko ditu, finanturiko helburu guztiak, ekonomikoak, gizarte mailakoak eta hirigintzakoak bete daitezzen eta proiektua guztion interesekoaren kalifikazioa izan dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du merkataritzako eremu handiak ezartzeko proiektu berrien lizentziak eta daudenak handitzekoak bertan behera eta gerorako uzteko epe bat aplikatu dezan, sektoreko eskaintza ez handitzeko Parlamentuak onetsitako lege-esparrurik eduki artean.

Iruñean, 2000ko apirilaren 19an

Bozeramailea: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko arauak alda ditzan

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko arauak alda ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinek aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babespean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Etxebizitza baten premian dauden pertsona eta familiguneez aukera berberak izan behar dituzte, baina etxebizitza babestuak lortzeko baldintzak, praktikan, diskriminazio bihurtzen dira, batez ere etxebizitza bat duten pertsona eta familiguneentzat; izan ere, baldintza eta muga horiek direla-eta, ez dituzte babes ofizialeko etxebizitza (BOE) bat lehen aldiz eskuratu nahi dutenen aukera berberak.

Halatan, hiru kide edo gehiago izan eta gela bakarreko edo gela biko etxebizitzetan bizi diren familiguneez ezin dute etxebizitza handiagoa eskuratu –legeak ez die horretarako biderik ematen–, eta, berriz, pertsona bakar batek halako etxebizitza bat eskuratu dezake erosten duen lehen etxebizitza baldin bada. Horren ondorioz, beharrezana duten familiguneez merkatu libreran jotzen dute BOEen merkatuak ukatzen dien etxebizitzaren bila.

Merkatu libreko prezioek behartuta, familigune horiek ahalik eta etekinik handiena atera nahi diote lehengo etxebizitzari; horrela, hura deskalkifikatu egin behar izan dutenez, hasiera batean babes ofizialekoak ziren etxebizitzaren prezioak

gora egiten du. Gainera, oso gutxi dira eskaintzen diren BOEak, eta horrek eskatzaileen zerrenda ikaragarriak sorrarazten ditu merkatuan halakorik jartzen denetan.

1999ko abenduaren 20ko 621/1999 Foru Dekretuak are gehiago murriztu ditu etxebizitza txikia duten familiguneez etxebizitza handiago bat izateko dituzten aukerak. Dekretu horren bidez, 5 urtetik 12 urtera handitu da BOEak deskalkifikatzeko epea, baina ez da inolako neurri osagarririk hartu azalera handiagoko BOEak eskuratu ahal izateko, ez eta BOE gehiago eskaintzeko neurririk ere.

Aldi berean, Nafarroako Parlamentuan, UPNk eta PSNk –gehiengoa baitute– atzera bota dituzte BOEen eskaintza areagotzearen EHk aurkeztutako ekimenak, baina gehiengoa duen talde horrek, UPN eta PSNk osatzen dutena alegia, ez du bestelako neurririk hartu etxebizitzaren prezioaren arazoa konpontzeko, eta halatan, arazoa konpondu ez baizik eta okertu egin da.

Horrenbestez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, presako neurriak hartu behar direla jakitun den aldetik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1.- Nafarroako Gobernua premiatzen da gehienez ere hilabeteko epean egin beharreko aldaketak egin ditzan BOEi buruzko araudian (bete beharreko baldintzak, horiek esleitzeko arauak eta abar); helburua da BOEen egungo jabeek eta 90 m² baino gutxiagoko etxebizitza libreen jabeek BOEak erosi ahal izatea, etxebizitza bat izatea oztopo izan gabe eta horregatik puntu gutxiago izan gabe. Halako egoeran dauden familiguneez, BOEi buruzko araudia aplikatuz ateratzen den prezioan utzi beharko dute Nafarroako Gobernuaren esku orain duten etxebizitza, baldin eta babes ofizialeko etxebizitza berri bat eskuratzen badute.

2.- Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan 1999ko abenduaren 20ko 621/1999 Foru Dekretuaren atzeraeraginak ukitutako familiguneez lehentasuna izan dezaten BOEen hurrengo sustapen publikoetan, egun dutena baino etxebizitza handiago bat eskuratzen.

3.- Nafarroako Gobernua premiatzen da Lurzoruari buruzko Foru Legea dela-eta aurreikusita

dagoen aldaketa egiterakoan, egungo legeriak -10/1994 Foru Legea- ezarritakoak baino BOEen erreserba-modulu handiagoak ezar ditzan hirigintza plangintzan. Zehazki, 7.000 biztanletik gorako Udalen udal planek babes publikoari atxikitako etxebizitzak eraikitzeko lurzorutzat jo beharko

dute lurzoru urbanizagarrian etxebizitzak egiteko aurreikusitakoaren % 65.

Iruñean, 2000ko apirilaren 19an

Bozeramailea: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da herrialde txiroenen kanpo zorra deusezta dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da herrialde txiroenen kanpo zorra deusezta dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinek aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko bozeramaile Juan José Lizarbe Baztán jaunak, mozioak arautzen dituen Biltzarren Erregelamenduko 192. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin; mozio honen bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da herri txiroenen zorra ezaba dezan.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak uste du munduko herri txiroenetako txirotasunaren eta gosearen kontra borrokatzea, azpigarapenari atxikia den gaitasun txirotasuna ere barne, baita esplotazioaren eta munduko baliabide ekonomiko eta teknologikoak

eskuratzeko desberdintasunaren kontra ere, lehentasun politikoetako bat izan behar dela, globalitatearen erronkei erantzuna emateko.

2000. urtea erabakiorra izan behar da herri txiroenen zorra ezabatzeko. 7en Taldearen konpromisoak gauzatu beharko dira, herri horietako zorra ezabatzeko inbertsioak suspertzea ekar dezan. Inbertsioak, nekazaritzako elikagaietan, oinarriko azpiegitura zibiletan, prestakuntza eta hezkuntzan. Txirotasunaren kontrako borrokan emakumeentzako berariazko estrategiez baliatu beharko gara, baldintza makurrenetan bizi den eta globalizazioaren ondorioek gogorkien jotzen dituen gehiengo handia baitira. Emakumeen autonomia funtsezkoa da txirotasuna errotik desagertarazteko. Emakumeek garapenaren joeran partaide aktibo gisa murgildu beharra dute, programak jasotze hutsera mugatu gabe.

Espainia ez da gizateriaren behar orokor honegatik kanpo gelditu behar; hortaz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen ustetan, komeni da Nafarroako Parlamentuak, nafar guztiak ordezkatzeko dituen erakundea den aldetik, herri txiroen kanpo zorra ezabatzeko egiten ari diren eskaeren aldeko iritzia plazara dezan.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du herri txiroen kanpo zorraren arazo larriaren aurrean alde batera gelditu ez dadin eta herri txiroenen zorra ezabatzeko neurriak har ditzan.

Iruñean, 2000ko apirilaren 19an

Bozeramailea: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espetxe berrian Jarraipen Bereziko Espetxeratuena Fitxategia (JBEF) ereduko modulu bat sortzea eragoz dezan

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Begoña Errazti Esnal foru parlamentari andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Nafarroako Gobernua premiatzen da espetxe berrian Jarraipen Bereziko Espetxeratuena Fitxategia (JBEF) ereduko modulu bat sortzea eragoz dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Gizarte Gaietako Batzordean eztabaida dadin.

Espainiako Estatuko espetxeetan, azken urte hauetan, bide ezberdinak artikulatu dira espetxeratuena araubide berezia ezartzeko.

1991n, Jarraipen Bereziko Espetxeratuena Fitxategia (JBEF izenarekin ezagutzen da) sortzeko agindua eman zen. Hartan, tratamendu berriazkoa aplikatzea beharrezko dutela uste diren espetxeratuena gaineko ahal den eta informazio

guztia bildu nahi zen. Fitxategiak aurrekari penalak eta prozesalak, gorabehera, kanpokoekin izaniko komunikazioak eta abar biltzen ditu. Bost atal ditu: altxamenduetan parte hartu duten espetxeratuak, narkotrafikatzaileak, erakunde armatuekin lotura dutenak, espetxeratuena Estatuko segurtasuneko kideak eta kasu beraziak (intsumisoak biltzen dira atal honetan).

Halako fitxategi bat izatea ez da inolako arauhaustea, baina zalantzarria da espetxe araubidean duen aplikazioa. Espetxeratu hauen "berriazko tratamenduak" preso menperatzeko eta haren borondatea deuseztatzeko neurriak aplikatzea ere badakar berekin, esate baterako geletan denbora gehiagoz egon behar izatea, araketak egitea baita patiora ateratzeko orduan ere, geletan baldintza oso eskasak egotea eta abar.

Datozen urteetan, espetxe berria eraikiko da Nafarroan. Oraingoan halako ezaugarriak dituen modulerik ez dagoen arren, mozio honen bitartez Nafarroako Gobernua premitatu nahi dugu bere eskumenak erabiliz etorkizuneko espetxean JBEF modulerik egotea eragoz dezan, espetxeratuena laidozko tratua ematea ekar baitezake, eta, hartara, espetxeratuak gizarteratzeko oztopoak jartzen direlako.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, bere eskumenak erabiliz, foru lurraldean aurki eraikiko den espetxe berrian JBEF isolamendu modulerik egotea eragoz dezan.

Iruñean, 2000ko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere langileen eta azpikontratutako langileen segurtasuna eta osasuna bermatuko dituen aurreneurrien plan bat egin dezan

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere langileen eta azpikontratutako langileen segurtasuna eta osasuna bermatuko dituen aurreneurrien plan bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinek aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkurak eztabaida eta bozka dezan.

Europar kezka handiena sortzen duten arazoetako bat laneko segurtasuna eta osasunarena da. Europako Agentziaren arabera, urtean 5 milioi lan-istripu inguru gertatzen dira, eta horietatik 6.000 heriotz istripuak dira. Halaber, inkesta batzuen arabera, Europako langileen % 30ek bizkarreko mina dute, eta % 28k kexua du laneko estresarengatik, mina eragiten duten jarreretan edo jarrera behartuetan lan egitearen ondorioz, lan errepikakorrek erritmo handiz egitearen ondorioz eta zarata handiak jasan beharraren ondorioz, besteak beste. Egoera honen ondorioek giza kostu eta kostu sozial handia eragiteaz gainera, diru galera handiak ere ekartzen ditu, gizarte eta osasun sektoreetako kostuak handitu direlako eta enpresen produktibitatea asko jaitsi delako.

Arazo hau askoz ere larriagoa da Hego Euskal Herrian, non lan-istripuen eta bajen tasak Europako batez bestekoen oso gaineratik dauden. Urteko lehen hiruhilekoan, 30 hildako izan dira lan-istripuen ondorioz, horietatik 8 Nafarroan, eta milaka

pertsonak lanarengatik bajak hartu behar izan dituzte.

Horrek guztiak erakusten du aurten oraindik ere lan-istripu gehiago izanen direla joan den urtean baino. Nafarroako Lan Osasunaren Institutuaren datuen arabera, 2000ko lehen hiruhilekoan 3.852 lan-istripu izan dira; horrek esan nahi du joan den urteko lehen hiruhilekoan (3.233 lan-istripu) baino % 20 gehiago izan direla.

Bereziki dramatiko da eraikuntzaren sektorean gertatzen dena; sektore horretan, 1999an, 2.908 lan-istripu gertatu ziren Nafarroan, eta horietatik 6 heriotz istripuak izan ziren.

Istripuen kopuru handi horren arrazoia da enpresek prebentzio eta segurtasun sistemarik ez izatea, baina, horrekin batera, ezin uka dezake inork istripuetako asko, besteak beste, plantillen behin-behinekotasun eta aldi baterakotasunaren ondorioz, lan erritmoen ondorioz, mugarik gabeko azpikontratazioen ondorioz eta langileen prestakuntza faltaren ondorioz gertatzen direnik.

Egoera honen aurrean, erakunde publikoek, eta zehazki Nafarroako Gobernuak, ezin daitezke besterik gabe egon, ezer gertatuko ez balitz bezala, eta behar diren ekimen guztiak eraman behar dituzte aurrera ez bakarrik Nafarroako Gobernuaren beraren obra eta zerbitzuetan bakarrik, baizik eta baita ere Nafarroako Gobernua sustatzaile edo partaide den obretan ere. Horietako askok, gainera, eraikuntza sektorearekin zerikusi handia dute eta langile ugari biltzen dituzte.

Hori guztia dela eta, gure taldeak ondoko mozioa aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Enplegu-emaile gisa dituen betebeharrak bere gain hartu eta ondokoak egin ditzan:

a) Lanpostu eta lantoki guztietako arriskuak ebaluatu, prebentzioaren lau disziplinetan azterturiko lau aldagaiak bilduz: segurtasuna, higiena, lan medikuntza, psikosoziologia eta ergonomia. Era berean, arrisku horiek deuseztatzeko, murrizteko edo ahal den guztian gutxitzeko behar diren neurriak ezartzea.

b) Prebentzio zerbitzu propioa edo mankomunatu ezartzea, behar diren baliabide ekonomikoekin eta giza baliabideekin.

c) Osasun eta Segurtasun Kontseiluan –eztabaidatu, hobetu eta onets dadin– Segurtasuna eta Osasuna bermatzeko prebentziorako plan oso bat aurkez dezan, bai langile propioentzat eta bai azpikontratazioen bitartez obrak eta zerbitzuak egiten dituzten langileentzat.

2. Nafarroako Gobernua sustatzaile edo partaide den obra eta zerbitzuak egiteko kontratatutako enpresa guztiek bete behar dituzten irizpideak eta kontrol mekanismoak presta ditzan. Bitartean, berehalako neurriak hartuko ditu lan segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dauden baldintzak betetzen ez dituztenen aurka.

3. Legeetan behar diren aldaketak susta ditzan sustaturiko –edo partaidetzaren bat duen– obra eta zerbitzuen adjudikazioan lizitatu nahi duten enpresa guztiek prebentziorako baldintza guztiak bete ditzaten, eta alde batera utz ditzan lan segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dauden legeak betetzen ez dituztenak eta behin eta

berriz lege horiek ez betetzeagatik zehapenak jaso dituztenak. Halaber, adjudikazioan, argi ezarri beharko dira parte hartuko dituzten azpikontratak; horiek ezin izanen dira aldatu eta ezin izanen dute lana besteren esku utzi, aldez aurretik Nafarroako Gobernuak hori onartu eta kontrolatu gabe. Halaber, aldi baterako lan enpresek (ABLE) ezin izanen dute haietan parte hartu.

4. Aipatu obrak eta zerbitzuak gauzatzeko enplegaturiko langileen gutxienez % 85ek kontratu finkoa edo mugagabea eduki beharko dute, eta aldi baterako langileek, gutxienez ere, obra kontratu bat edukiko lukete, enpresa batzuek haienztzat lan egiten duten langile askori inposatzen dieten autonomoen modalitatea onartu gabe.

5. Akordio honen berri ematea Nafarroako Gobernua partaide den obretako sindikatuei eta adjudikazioak hartzen dituzten enpresei, eta bidea ematea haiek parte har dezaten prebentziorako neurrien jarraipenean eta kontrolean.

Iruñean, 2000ko apirilaren 27an

Bozeramailea: Joxe Fernando Barrena Arza

F saila:
GALDERAK

Garraioaren Hiriko erreka hobetu eta estaltzeari buruzko galdera

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Garraioaren Hiriko erreka hobetu eta estaltzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Imarkoingo Kontzejuan Garraioaren Hiria eraiki zenean, urak hustutzeko ubide bat jarri zen,

zeina "Garraioaren Hiriko Errekena" izenez ezagutzen baita.

Egindako obra ez da aski, ezta hurrik eman ere, euria eta euria ari duenean ura hustutzeko; izan ere, urak behin baino gehiagotan egin du gainezka erretenean, horrek dakarren eragozpen eta arriskuarekin.

Obra hori Nafarroako Gobernuak egin zuen, eta errekena estaltzeko konpromisoa ere hartu zuen, baina orain arte ez du halakorik egin. Horrenbestez, hauxe jakin nahi da:

Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak "Garraioaren Hiriko Errekena" estali eta hobetzeko obra egitea, geroan izan daitezkeen gainezkaldiak ekiditeko?

Hala baldin bada, zein epetan uste du Nafarroako Gobernuak egonen dela bukatuta obra hori?

Iruñean, 2000ko apirilaren 14an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Espainiako Telefónicak datu pertsonalak erabiltzeari buruzko galdera

FELIX M^a TABERNA MONZON FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Félix M^a Taberna Monzón Foru Parlamentari jaunak Espainiako Telefónicak datu pertsonalak erabiltzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetz, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du idatziz erantzun diezaioten.

Berriki, Telefónicaren ohiko fakturarekin batera nafar askok jaso dute, edo jaso-hurren egonen dira, ondokoa bezalako orri bat:

“Telefónica de España

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos, Telefónica de España, S.A. Sociedad Unipersonal (en adelante Telefónica de España) le informa que sus datos personales de contratación junto a los obtenidos durante la vigencia del contrato, están incorporados en ficheros automatizados titularidad de esta Empresa. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación y cancelación, previstos en la Ley, dirigiendo un escrito a Telefónica de España, Ref. DATOS, Apdo. de Correos 46155, 28080 MADRID.

Asimismo, con la finalidad de ofrecerle nuestra mejor atención e informarle de nuestros servicios de telecomunicaciones y, en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 65 del R.D. 1736/98, de 31 de julio (BOE 5 de septiembre de 1998), Telefónica de España solicita su consentimiento para tratar, junto con los datos personales que Vd. nos ha facilitado, los datos de facturación telefónica.

Si no desea que este tratamiento se produzca, puede comunicárnoslo dirigiendo un escrito a la anterior dirección, significándole que, conforme a la legislación vigente, si no recibimos noticias tuyas en el plazo de un mes, entenderemos otor-

gado su consentimiento que, en todo caso, podrá revocar en cualquier momento.”

Komunikazio horrek berekin dakar kontsumitzaileek pasiboki onartzea konpainiak norberaren datuak erabili ahal izatea. Horrek esan nahi du –gaintek bada ere eta ustiatzailearen (datuena) balizko alarde irudimentsuak baztertu gabe–, Telefónicak jakin dezakeela batek telefono erotikoetara deitzen ote duen, edo alderdi politiko jakin batzuetara deitzen duen, edo telefonoaren ordainketa helbideratuta daukan banku entitateaz beste batzuekin harreman ote duen, akziorik ote duen (burtsako brokerrei deitzen ote dien, esate baterako), baita haiek dituzten datuak bezeroak egindako dei guztiekin alderatuta ondoriozta daitezkeen gainerako gauza guztiak ere.

Bezeroen ohiturei buruzko datuak ere jakin ditzake: zein ordutan egoten den etxean (kanporako deiak) edo zein ordutan ez dagoen inor etxean (kanpotik heldu baina erantzunik izan ez duten deiak), Telefónicarenaz bestelako Internet hornitzaileak erabiltzen dituen edo, baita ere, bezeroek maizen deitzen dituztenak herri berean nahiz kanpoan bizi diren, kompetenziaren telefonoak erabiltzen ote dituzten, edo bezeroak maiz deitzen dituenak erakunde jakin batera deitzen duten pertsona berak ote diren...

Halako kontrola izateko, Telefónicak gure onarpena eskatzen du leunki, baina kontua da gu garela berez daukagun eskubide bat errespetatzea deitzen eskatu behar dugunok.

Lehenbizi: zergatik hilabeteko epean? Faktura jasotzen denetik? Non agertzen da zein egunetan jaso dugu faktura? Igorri zenetik? Zenbat egun behar izan ditu guri heltzeko? Zenbat nafarrek erantzunen diote Telefónicari? Zenbat hurbilduko dira posta bulegoetara ziurtatzeko enpresa pribatu bati eskatzen diotela intimitaterako eta datuen pribatasunerako eskubideak errespetatzea diezazkion? Herritar bakoitzak banaka eskatu behar al dio enpresa bakoitzari bere buruari dagokionez legea errespetatzea dezan?

Laburbilduz: ekintza hauen bitartez ahal den guztian murriztu nahi da Telefónicari bere datuak erabiltzeko baimena ematen ez dien herritarren kopurua.

IUN-NEBn uste dugu ekimen pribatu horrek kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak urra ditzakeela. Hori dela eta, ondokoa jakin nahi du:

Zer urrats emanen ditu Nafarroako Gobernuak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes zilegiak defendatzeko kasu honi dagokionez?

Iruñean, 2000ko apirilaren 14an

Foru parlamentarioa: Félix M^a Taberna Monzón

Nekazaritza inbertsioen blokeoaren ondorioz sorturiko polemikari buruzko galdera

JOSE ANDRES BURGUETE TORRES FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 3an egindako bilkuran, José Andrés Burguete Torres Foru Parlamentari jaunak nekazaritza inbertsioen blokeoaren ondorioz sorturiko polemikari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Orain dela gutxi Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren eta UAGN sindikatuaren arteko polemika piztu da nekazaritza inbertsioen blokeoaren ondorioz. Blokeo edo mantsoitze horren atzean dago araurik eman ez izana Agenda 2000ko ondoko gaiei buruz: nekazari gazteak instalatze, nekazaritzako ustiategiak hobetzea, nekazaritzako lurra basoberritzea, nekazaritzaren eta ingurumenaren arloko laguntzak eta abar.

Horren ondorioz, 2000ko lehen hiruhilabetean ezin izan da inbertsiorik egin eta jaso diren eskaerei ezin izan zaie erantzun behar bezala eta azkar, sektore horretan erantzun behar den gisa.

Apirilaren 17an hain zuzen ere, Gobernuak, asteroko bilkuran, nekazaritza finantzatzeari buruzko araudia aldatzea onetsi zuen, FEOGaren landa garapenerako laguntzei buruzko Europako

batasunaren erregelamendua kontuan hartuta aldatu ere. Egoera horrek agerian uzten du 2000ko lehen hiruhilabetean zehar ez dela legeestaldurarik izan, alegia, baieztatu egin dira nekazaritza sektorean gehiengoa duen sindikatuaren susmoak.

Horregatik guztiagatik, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren eskualdeko bulegoetan 2000ko apirilaren 17ra bitarte aurkeztu diren espedienteak.

2.- Eskualdeko bulego horiek Departamentuaren bulego nagusietara –Tutera kalea, 20– igorri dituzten espedienteak.

3.- Aurkeztutako espedienteek guztira egiten duten inbertsio-bolumena.

4.- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ebatzi ez dituen espedienteen zerrenda.

5.- Ebatzi bai baina oraindik ere ordaindu gabe dauden espedienteak.

6.- Zer legedi aplikatuko da ebazteke dauden espedienteak ebazteko eta horiei dagozkien laguntzak zehazteko?

7.- Egin al da nekazaritzako inbertsioei buruzko hitzarmen markorik banketxe eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuarekin? Halakorik egin bada, finantza entitateekin egindako hitzarmenaren kopia ere nahi dugu.

8.- 1999ko azaroan eta abenduan eta 2000ko urtarrilean, otsailean, martxoan eta apirilean aurkeztu eta ebatzitako espedienteen zerrenda.

Iruñean, 2000ko apirilaren 17an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Foru Administrazioari lanpostuetan euskararen erabilerrari eta baremazioari buruzko galdera

JOSE ANDRES BURGUETE TORRES FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 3an egindako bilkuran, José Andrés Burguete Torres Foru Parlamentari jaunak Foru Administrazioari lanpostuetan euskararen erabilerrari eta baremazioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregulamentuaren 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoari jarraikiz, honako galdera egin dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

Nafarroako gizartean eztabaida sortu da zenbait agintari politikok hartu duen jarrera dela bide, Euskararen Legea aldatzeko eskatzen ari baitira behin eta berriz. Beharrezkoa da gogoraraztea foru lege hori 1987-1991 legegintzaldian Parlamentuan ordezkatuak zeuden talde politikoen gehiengoaren adostasunez sortu zela. Baina hara non, ez zuen alderdi abertzaleen laguntzarik jaso, foru lege horri mugatzailea ezezik murriztailea ere bazela irizten baitzioten.

Ordutik hona legedi hori aldatzeko beharrari buruz eztabaidatu izan da zenbaitetan, euskararen eskaria 14 urte pasa ondoko errealitate berri honetara egokitzeko.

Nafarroako Demokratien Elkarguneak, besteak beste, aldaketa bat proposatu zuen aurreko legegintzaldian, Parlamentuak eta Gobernuak hartutako jarrera hipokritarekin bukatzeko; izan ere, alde batetik eremu ez euskalduneko ikastolak ez dira baimentzen, baina bestetik, dirulaguntzak ematen zaizkie eta ondorioz, beraien irregulartasun irudia handitzen da. Egoera horrek erakusten zuen Nafarroako Gobernuak ez duela jakin euskarazko eskariari erantzuten, bide arautua erabiliz. Eskaria, gustatu ala ez gustatu, erreala da eta eskari horri erantzuteko bestelako gizarte ekimen batzuk sustatu dira.

Aurkeztutako aldaketa hura ez zen hedatzailea ez eta ere mugatzailea. Araudia errealitateko egoitzea zuen helburu. Eskari harekin Nafarroako Demokratien Elkarguneak egungo araudiaren alde zegoela erakutsi zuen, baina hara non ekimen hark ez zuen HBren laguntzarik jaso; azken honek euskarazko irakaskuntza Nafarroako eremu guztietan derrigorrezko izan zedin nahi baitzuen, eta halaxe nahi du orain ere. Nafarroako Demokratien Elkargunea ez dago aukera horren alde; gure ustez, eremu ez euskalduneko eskariari borondatezko irizpideari jarraikiz erantzun behar baitzaio. Ez gaude euskararen ikaskuntza Nafarroako txoko guztietara aginduz hedatzearen alde, hori ez baita bidezkoa eta ezta beharrezkoa ere.

Horregatik guztiagatik, uste dugu irtenbiderik onena eremu mistoko irakaskuntza-sistema Nafarroa guztira hedatzea dela. Horrekin lortuko genuke, batetik, Leitzan gazteleraz ikasi nahi duen batek normaltasun osoz ikasi ahal izatea, eta bestetik, Nafarroako Erriberan euskaraz ikasi nahi dutenei ere bide arautua eskaintzea, betiere horretarako onartutako ratioak betetzen badira.

Gaur egun zabaldu den beste eztabaida Funtzio Publikoan sartzeko euskaraz dakitenen diskriminazioari buruzkoa da. Nafarroako Gobernuak Lehendakariak Euskararen Legea aldatzearen alde daudenen aurka sortutako egoera hori, demagogiaren adibide bat baino ez da, eta azaldu beharra dago.

Administrazio publikoak bete beharreko lanpostuak dagoen eskariaren arabera dira. Esan behar da hiru urtetan ikasketak hasten dituztenen artetik % 60 baino gehiagok euskarazko irakaskuntza eskatzen dutela, guri gustatu ala ez, eta administrazioak eskari horri erantzun behar diola ezinbestean. Horregatik, besteak beste, deitzen diren plazak zerikusi handia dute euskarazko ikaskuntzarekin, ezin baita ahaztu behar gaztele-razko plazak beste funtzionario batzuekin beteta daudela aspaldidanik.

Ezin da ahaztu halaber, zeini dagokion oposizioetako eta oposizio-lehiaketetako baremoak prestatu eta onestea. Gobernuak Lehendakariak atentzioa beste toki batzuetara bideratu nahi izan du, nahiz eta Gobernuak meritu horien prestaketan eta baita duela gutxi Funtzio Publikoaren Hitzarmenean sindikatuekin hitzartutako euskara-

ren sustapenerako kanpainetan ere erantzukizunak izan.

Horrenbestez, ondoko galdera hauek idatziz erantzun daitezten eskatzen dugu:

1.- Euskararen eskakizuna ezinbestekoa den lanpostu publikoen zerrenda, departamentuka. Foru Administrazioaren zerbitzura dauden langile guztien zerrenda.

2.- Eremu ez euskaldunean, Nafarroako Gobernuak baimendu ez baina haren dirulaguntzak jasotzen dituzten ikastetxeetan euskarazko irakaskuntzan ari diren ikasle kopuruaren zerrenda.

3.- Nafarroako Gobernuak aurreko galderako egoerak normalizatu eta ebazteko ematen dituen konponbideak.

4.- Nori dagokio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoko plazak deitzeko beharrezkoak diren baremoak prestatzea?

5.- Hitzartu al du Nafarroako Gobernuak sustapen neurri zehatzen bat, duela gutxi sinatutako Funtzio Publikoaren Hitzarmenaren negoziazioaren barruan?

6.- Lehendakartzako kontseilari Gurrea jaunak, Funtzio Publikoaren Hitzarmenean, sindikatuekin 2000-2001 urteetarako akordio puntu bat sinatu du: "lanpostua eskuratzeko euskararen jakitea frogatu beharreko baldintzatzen duten eremu ez euskalduneko eta mistoko plazak zehaztea". Zer asmo du hori dioenean, eta zer hartzen du bere baitan?

Iruñean, 2000ko apirilaren 17an

Foru parlamentari: José Andrés Burguete Torres

Los Arcosen kontserben arloko industria bat ezartzeari buruzko galdera

JOSE ANDRES BURGUETE TORRES FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 3an egindako bilkuran, José Andrés Burguete Torres Foru Parlamentari jaunak Los Arcosen kontserben arloko industria bat ezartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoari jarraituz, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

1999an zehar ikusi genuenez, Los Arcoseko herrian kontserba-fabrika batek (ORPLASA) bokartak prestatzeko egin nahi zuen inbertsioa ezin izan zen burutu zenbait arrazoi zirela medio. Garai hartan Laneko Zuzendaria zen Rodriguez

San Vicente jaunak ekimen hura lagundu ezezik bertan parte hartu zuen. Zenbait arrazoi zirela-eta, ekimena bertan behera gelditu zenean, San Vicente jaunak, gaur egun Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendariak, baieztatu zuen ezin zirela izenak aipatu, baina beste sustatzaile bizkaitar batzuk zeudela, eta halaber, beharrezkoa zela zuhur jokatzea "beraien jaioterrian presiorik jasan ez zezaten".

Gaur egun, adierazpen haiek egin zituenetik ia urtebete pasa delarik (1999ko ekaina), guk dakigunez ez da horrelako enpresa jarduerarik Los Arcos herrian, garai hartan Rodriguez San Vicente jaunak besterik esan arren.

Beraz, jakin nahi dugu:

1.- Hitzegin al du Nafarroako Gobernuak (edo haren menpeko beste edozein erakundek) Orplasa sustatzaileek Los Arcosen hasitako enpresa jarduerarekin jarraitu behar zuten sustatzaile bizkaitarrekin?

2.- Sustatzaile bizkaitar horiek gutxi gorabehera 500 milioitako inbertsioa egin behar zuten, Rodriguez San Vicentek zioenez. Ba al dago momentu honetan inbertsio hitzarmenik Nafarroako Gobernuaren eta Los Arcoseko kontserba-fabrikako sustatzaile berrien artean? Hala bada,

hitzarmenen zerrenda eta hitzartutako kopuruak adierazi.

3.- Herri horretan 60 lanpostu sortzeko piztutako itxaropenen aurrean, ba al du Industri Kontseilaritzak bestelako aukerarik Los Arcos herrirako, baldin eta aipatutako kontserba-fabrika hori jar-tzen ez bada?

4.- Egun, zein egoeratan dago ORPLASako sustatzaile Alberto Orraca eta José Luis Plaza Balda jaunen aurka, Foru Ogasunari iruzur egiten ahalegintzeagatik, ezarritako salaketa?

Iruñean, 2000ko apirilaren 17an

Foru parlamentari: José Andrés Burguete Torres



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--